

2017 API. 21

SARRERA - ENTRADA

IRTEERA - SALIDA

Zka. 588 N.º

Zka. .... N.º

## KARAKATE

### MENDIKO GOTORTZE SISTEMAREN MIAKETA ARKEOLOGIKOAREN PROIEKTUA

ELGOIBAR - SORALUZE

2016

## ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA



Proiektu arkeologikoa:  
Antxoka Martínez Velasco  
Historiaurreko Arkeologia Saila  
ARANZADI ZIENTZIA ELKARTEA





## AURKIBIDEA

---

---

### 0. FITXA TEKNIKOA

---

#### 1. SARRERA

#### 2. PROIEKTUAREN HELBURUAK

#### 3. METODOLOGIA

#### 4. KATAK ETA EBAKIDURAREN GARBIKETA. EMAITZAK

---

#### 5. MIAKETA MAGNETIKOA. EMAITZAK

#### 6. BALORAZIOA

#### 7. BIBLIOGRAFIA

---

#### 1. ERANSKINA: PLANOAK

#### 2. ERANSKINA: MATERIALEN INBENTARIOA



## 0. FITXA TEKNIKOA

---

**Gaia:** Esku-hartze arkeologikoaren txostena

**Aztarnategia:** Karakate mendia

**Udalerriak:** Elgoibar eta Soraluze

---

**Esku hartze arkeologikoa:** Karakate aztarnategiaren miaketa arkeologikoa

**Erakundea:** Aranzadi Zientzi Elkartea

**Zuzendari Arkeologikoa:** Antxoka Martínez Velasco

**Datak:** 2016eko udazkena-negua

---

**Finantzazioa:** Soraluzeko eta Elgoibarko Udalak

---

**Oinarri topografikoa:** Gipuzkoako Foru Aldundia



## 1. SARRERA

Txosten honetan jasotzen dira Karakate mendian (748,32 m) dagoen aztarnategia ezagutzeko bideratu den miaketa arkeologikoren emaitzak (ikusi Eranskina, Plano 1). Mendi hori Elgoibar eta Soraluze udalerrien artean kokatzen da, Deba ibaiaren haranaren gainean nabarmentzen den gailur batean, Irukurutzeta mendilerroaren mendebaldeko muturrean.

2016ko martxoan mendi horretara egindako bisita batean defentsa lerro bat identifikatu zen gailurra ixten. Itxidura horrek gotorlekua bihurtzen du tontorra eta, hortaz, multzo bakarra osatzen dute, hau da, gotorleku bat (ikusi Eranskina, Plano 2).

Erreferentziako koordinatua (gotortze sistemaren sarrerarena):

UTM 30N ETRS89 547608.42,4782326.43,740 m



Fig. 1. Karakate. Gotortze-sistemaren ikuspegi orokorra, ekialdetik.

Topatutakoaren ezaugarriari begiratuta, hasierako interpretazioa izan zen (baieztatu edo ezeztatu beharrekoa) aurkitutako egiturak direla kanpaina militar baten zehar egindako erromatar kanpamendu militar batenak (*castra aestiva*). Hortik abiatuta, miaketa arkeologiko bat planteatu zen horiek ezagutzera bideratuta eta hasierako hipotesi hori baieztatzeraz edo ezeztatzeraz.

Jarraian, jarduera horren ezaugarriak eta emaitzak zehazten dira.



## 2. PROIEKTUAREN HELBURUAK

Proiektuaren helburu nagusia izan da erromatar defentsa lerro bezala identifikatutako egitura dokumentatzea, eta hortik abiatuta, egiaztatzea edo ezeztatzea hasierako hipotesi hori.

Horretarako, hiru lan desberdin planteatu ziren:

1. Miaketa-magnetikoa.
2. Defentsa lerroaren ebakidura garbitzea.
3. Bi kata, 1 x 1 m-takoak. Tontorraren mendebaldean dagoen zelaian egitekoak.

Mota honetako aztarnategietan, kanpaina militar baten zehar egindako kanpamentuetan, gaur egun ezagutzen diren adibideek erakutsi duten bezala (Camino et al. 2015; Serna et al. 2010), normalean defentsa sistema bakarrik kontserbatzen da. Izan ere, defentsa sistemaren egitura eta hura egiteko erabilitako materialak dira, hain zuzen ere, kanpamentu mota horiek bereizteko ezaugarri nagusia.

Oso ezohikoa da bestelako egiturak izatea esparruaren barrualdean (eraikinak, barrakoiak, etab.). Eta normalean ere, oso material gutxi aurkitzen da. Kasurik gehienetan, materialak, metalikoak dira eta galera puntualei zor zaie.

Horregatik, planteatutako lana baldintza horiei erantzuten die. Beraz, batetik konprobatu nahi izan zen defentsa lerroaren egitura eta barrualdean egiturarik zegoen hala ez, eta bestetik materialaren bat topatzen saiatu.

Ezaguna da Karakate mendian Guda Zibileko egiturak daudela, izan ere, azalean ikusgai daude erraz asko. Modu berean, ezaguna da bertan borrokaldiak izan zirela 1937ko irailean ejerzitu nazionalak Gipuzkoa hartzeko egindako oldarraldien testuinguruan (Martínez Bande 1969: 84).

Guda zibileko egiturak eta materialak erromatar kanpamentuko esparru berari gainjartzen zaizkie. Hori guztia kontuan izan da miaketa egiterako orduan eta agertutako aztarnak modu berean dokumentatu dira. Hala ere, kontuan izan behar dugu, proiektuaren helburua izan dela erromatar okupazioa ikertzea, eta beraz, ez da sakondu Guda Zibileko aztarnen ikerketa.



### 3. METODOLOGIA

Jarduera honetan erabilitako metodologia proiektuan zehaztutakoa izan zen.

*Castra aestiva* motako aztarnategiek berezko ezaugarriak dituzte (vid. Peralta 2002) eta horregatik horien miaketa eta ikerketa burutzeko erreferentziatzat hartu dira azken bi hamarkadatan kantauriar guden inguruan topatutako eta ikertutako kanpamenduetan garatutako metodologia<sup>1</sup>.

Hiru lan burutu dira (ikusi I. Eranskina 2. Planoa):

#### 1. Miaketa-magnetikoa. Aztarnategi osoan egin zen.

Miaketa hau kronologia eta funtzionalitatea zehazten lagungarria izan zitezkeen materialak topatzera bideratu zen. Kasu hauetarako homologatutako metodologia erabili zen: topatzen den objektu bakoitza banaka jasotzen da, bere kokapenaren koordinatu geografikoarekin, eta hura bereizteko eta dokumentatzeko beharrezkoak diren datuak jasoz.

#### 2. Defentsa lerroaren ebakidura garbitzea.

- UTM 30N ETRS89 547547.98,4782298.33,725 m

Tontorra gaur egun antena batek okupatzen du. Hara heltzeko errepidea zabaldu zenean defentsa lerroa moztu zuten obrek. Hain zuzen ere, moztutako atal horretan sortutako ebakiduraren garbiketa burutu da defentsa lerroaren ebakidura ikusi eta dokumentatu ahal izateko.

3. Bi kata, 1 x 1 m-takoak. Tontorraren mendebaldean dagoen zelaian egin ziren (ikusi Eranskina, Plano 2):

- Kata 1. UTM 30N ETRS89 547481.69,4782383.57,731 m
- Kata 2. UTM 30N ETRS89 547488.38,4782416.06,726 m

Katetan eta ebakiduraren irakurteta estratigrafikoa egiteko erabili den metodologia Carandini-Harris metodoan oinarrituko da. Honen bidez, lur geruzak eta egiturak Unitate Estratigrafikoen (U.U.E.E.) bidez erregistratu dira, bai unitate positiboak bai negatiboak.

Agertutako aztarnen dokumentazioa eginda argazkien bitartez eta irudien bitartez.

Landa-lana bukatu ondoren jasotako materialaren siglaketa eta inbentarioa egin da. Elementurik nabarmenenak banaka ikertu dira.

Kontserbazio egoerak hala eskatuko balu, materialak finkatuak eta zaharberrituak izango dira Gordailuan biltegitratzen direnenan.

---

<sup>1</sup> Kantauriar guden inguruan ikertutako kanpamenduei buruz eta gaur egun arte burutu diren ikerketei buruz, erreferentzia modura kontsulta daitezke Serna *et. al.* 2010; Camino *et al.* 2015.



## 4. KATAK ETA EBAKIDURAREN GARBIKETA. EMAITZAK

Kata arkeologikoak eta ebakiduraren garbiketa zehaztutako tokietan egin ziren (ikusi I. Eranskina 2. Planoa)

### 4.1. Kata 1.

1x1 m, iparraldera zuzenduta.



Fig. 2. Karakate. Kata 1. Bukatuta.

Kata 30 cm-raino sakondu zen. Bi unitate estratigrafiko (UE) bereiztu dira:

- UE1. 18-20 cm. Azalekoa. Lur begetala, nahastuta.

- UE2. 20-30 cm. Geologikoa. Harriak lurarekin nahastuta. Bertoko haitzaren degradazioa.

Ez dira aurkitu ez materialak ezta egiturak ere. Ezezko emaitza eman zuen.

Kata bukatu eta gero, berriro estali zen lurraz.

### 4.2. Kata 2.

1x1 m, iparraldera zuzenduta.






Fig. 3. Karakate. Kata 2. Bukatuta.

Kata 40 cm-raino sakondu zen. Bi unitate estratigrafiko (UE) bereiztu dira:

- UE1. 15 cm. Azalekoa. Lur begetala, nahastuta.
- UE2. 5 cm. Geologikoa. Harriak lurrarekin nahastuta. Bertoko haitzaren degradazioa.
- UE2. 20 cm. Harritxoek osatutako gerusa erregularra..

Ez dira aurkitu ez materialak ezta egiturak ere. Ezezko emaitza eman zuen.

Kata bukatu eta gero, berriro estali zen lurraz.

#### 4.3. Ebakidura defentsa lerroan. Garbiketa lanak. (I. Eranskina, 3. Planoa)

Tontorrean dagoen antera doan errepidearen obrek sortutako ebakidura garbitu zen. Ebakidura hori defentsa lerroaren hegoaldeko muturra moztu zuen. Ez dago jakiterik zenbateko tartea desagerrarazi zuten obrek, baina aipatu beharra dago errepidearen bestaldean defentsa lerroak ez duela jarraikortasunik, beraz, gehienez 7-10 m bitarteko tarte bati eragin ahal izan zioten obrek.

Ebakidura horrek defentsa lerroaren kanpoko fosoari eta parapetoari eragin zion. Egindako lana izan da bakarrik ebakidura garbitu profila modifikatu gabe.

Egindako lanen ondorioz, defentsa sistemaren egitura dokumentatu ahal izan da. Hura bi elementuk osatzen dute, foso bat eta parapeto bat. Baliteke hirugarren osagai bat egotea fosoaren kanpoaldean, kontrafoso, baina ez da guztiz segurua.



Fig. 4. Karakate. 1.go defentsa lerroan errepidearen obrek sortutako ebakidura. Garbiketa lanen hasiera.

Oсотara 12,3 m-tako tarte bat garbitu zen. Hiru UE (unitate estratigrafiko) identifikatu dira:

- UE1. Unitate negatiboa. Bertoko haitzan indusitako foso. "V" zabal baten itxurakoa. 3,7 m-tako zabalera du eta 1,45 cm-tako sakonera.
- UE2. Unitate positiboa. Geruza irregularra baina 20-30 cm bitartekoa. Gehienez 5 m inguruko zabalera. Fosoaren indusketatik ateratako lurrak eta harriak fosoaren atzeko partean bildu ziren parapeto bat egiteko.
- UE3. Lur begetala. Foso osoa betetzen du, baita estaltzen du UE2a (parapetoa).

Ez dira aurkitu materialak.



Fig. 5. Karakate. 1.go defentsa lerroan errepidearen obrek sortutako ebakidura. Garbiketa lanak bukatuta.



## 5. MIAKETA MAGNETIKOA. EMAITZAK

Miaketa magnetikoa aztarnategiaren azalera osoan burutu da (ikusi I. Eranskina 2. Planoa) Minelab Explorer SE magnetometro bat erabiliz. Hiru gunere nagusitan bereiztu da:

1. Defentsa lerroa eta tontorra.
2. Tontorraren mendebaldea.
3. Defentsa lerroaren aurreko parte.

Miaketaren helburu nagusia izan da erromatar kanpamentuarekin erlazioan egon litekeen edozein objektu metaliko topatzea. Zoritzarrez ez da halakorik topatu.

Logikoaenez, miaketa magnetikoak "itsuan" egiten dira, hau da, ez dago modurik aurretik aukeratzeko topatu beharrekoa, beraz, miaketan topatzen da bertan dagoen edozein objektu metalikoa.

Aurreikusita zegoen bezala, mota eta garai desberdinetako materialak topatu dira azalera osoan sakabanatuta (ikusi I. Eranskina 4. Planoa). Osotara, 55 objektu desberdin topatu dira (ikusi II. Eranskina).

Objektuak hiru multzotan bereiztu daitezke:

1. XIX. Mendekoak. Fernando VII. ren 8 marateko txanpon bat (181?) eta 13 mm-tako berunezko bala. Esparrutik kanpo agertu dira eta agian erlazioan jar daitezke I. Karlistaldiarekin. Dena den, eta hala balitz, erregistro arkeologikoak erakusten du gertakizun horiek tontoretik urrun gertatu zirela.



Fig. 6. MKA.2016.1. Fernando VII. 8 marat. (181?)



Fig. 7. MKA.2016.2. Berunezko bala. 13 mm

2. Guda Zibila. 1937ko iraileko gertakizunekin erlazioan jar daitezkeen objektuak. Osotara 52 objektu. Gehienak kartutxoteriako elementuak dira (Kartutxoak, zorroak eta balak) kalibre desberdinetakoak. Horien artean nagusiki 7x57 mm-tako kartutxoteria, espainiar mauser fusilarentzako munizioa, eta gehienak ohiko lantegietakoak, Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia) eta Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia).



Fig. 8. MKA.2016.6 eta MKA.2016.4. 7x57 mm-tako kartuñoak. Espainiar Mauserrentzako.



Fig. 9. MKA.2016.41. Bala. 7 mm



Fig. 10. MKA.2016.4. Markaketa. FNT (Fábrica Nacional de Toledo). 193?.

Aipatzekoa da konprobatu ahal izan dela metraila ugari dagoela, bereziki tontorrean eta tontoretik ekialdera. Metraila hori artilleriazko jaurtigaiena da eta gaur egun oraindik ikusi daitekeen bonbek eragindako kraterren batekin batera, bertan artilleriaren bitartez egindako bonbardaketa egon zela egiaztatu ahal izan da.



Fig. 11. MKA.2016.51, MKA.2016.52, MKA.2016.53. Artilleriako jaurtigaien gidatze- eta behartze-banden zatiak



Fig. 12. MKA.2016.55. Artilleriako jaurtigai baten metraila zatia.



3. Etnografiarekin lotu daitekeen kanpaitxo bat agertu da. Brontzekoa edo bestelako kobre-aleaziokoa. Ganadu txikitarako erabili ohi direnetakoa. Bereizgarri bezala San Andresen ikoroski txikia dauka grabaturik gorputzean.



Fig. 13. MKA.2016.3. Kanpaitxo.

Miaketan zehar garaikideak diren objektu ugari topatu ziren, funtsean bisitari desberdinek botatako zarama. Jaso ziren mendia garbitzearren eta dagokien tokian bota.



## 6. BALORAZIOA

Egindako lanaren emaitzak positiboak izan dira. Batetik planteatutako lan guztiak egin direlako eta bestetik bilatutako helburu nagusiena bete delako, baieztatu ahal izan da hasieran identifikatutako defentsa-lerroa erromatarra dela eta, beraz, kanpaina militar baten zehar egindako erromatar kanpamentu baten aurrean gaudela baieztatu da.

Egindako lanek emaitza desberdinak eman dituzte. Katek ezezko emaitza eman dute, bai materialetan baita egituretan. Ebakiduraren garbiketa berriz, guztiz argigarria izan da. Hari esker dokumentatu ahal izan da defentsa-egitura, bereziki foso. Horrela, ikusi ahal izan da defentsa, puntu zehatz horretan, harriz eta lurrez egindako lubeta batez eta foso batez osatuta dagoela. Fosoaren aurrean lur metaketa txiki bat ikusten da eta baliteke kontra-foso batena izatea. Miaketa magnetikoari esker, berriz, hainbat objektu metaliko berreskuratu dira, gehienak Guda Zibileko kartutxoteria osagaiak, baina baita izaera etnografikoa duen kanpaitxo bat.

Miaketan lortutako datuak eta azalera ikusten diren ezaugarriak bilduta, defentsa-egituraren ezaugarriak zehazten lagundu dute. Defentsa lineala da eta haren kokapena bideratuta dago tontorraren esparrua ixtera. Egitura magaletik garatzen da baina haren ardatzarekiko perpendikularra.

Gotortze-egitura horiek koordinatutako bi defentsa-lerrok osatzen dute, biak lineala eta, aipatu bezala, mendi lerroaren muturrean dagoen tontorra ixten dute. Nagusiena lehenengo lerroa da, 82 m ingurukoa. Hiru elementuk osatzen dute lehenengo lerro hori: lurrezko betelana (lubeta), foso bat eta kontrafoso. Bigarren lerroa lehenengo lerrotik 17 bat metrotara dago eta harekin koordinatzen da, ibilbide edo trazaketa paraleloa mantenduz. Kasu honetan bi elementuk osatzen dute: lurrezko betelana (lubeta) eta foso bat. Azken hori pixka bat desitxuratuta Guda Zibileko lubaki bat berrindusi baitzen haren baitan. Bigarren lerro hori laburragoa da, 18 bat metro kontserbatzen ditu. Sarrera bakarra ikusten da defentsa lerroan, hain zuzen ere lehenengo lerroaren erdialdean. Sarrera sinplea da, hau da, hutsune bat lerroan, baina argi markatuta fosoan

Defentsa-lerro hau ez da nabarmentzen altueran edo ahalmenean, betiere ezagunak diren inguruetako Burdin Aroko defentsa-sistemekin alderatzen badugu. Zentzu horretan, oso adierazgarria da sarbidea defentsa-lerroaren erdialdean kokatu izana, harrizko harresirik ez egotea eta aukeratutako kokapena defentsaren aurrealdeari begiratzen badiogu, oso laua eta erregularra. Ezaugarri horien multzoa ez dugu ikusten garai historiko desberdinen gotorleketan.

Egituraren ezaugarrien multzoaren arabera –kokapena, ibilbidea, defentsa-sistema, eraikuntza-teknika eta sarbidea-, erromatar defentsa bat bezala identifikatu daiteke, hain zuzen ere, kanpaina militar batean egindako defentsa bezala. Eta beraz, egituratuta dago *vallum* baten eskemarekin, lubeta batek (*agger*), foso batek (*fossa*), eta baliteke kontra-foso batek (*contra-agger*) osatuta. Hori guztia bigarren lubeta edo *agger* batekin koordinatuta sarbidearen errefortsurako. Horrek guztiak kanpamentu esparru bat ixten eta babesten du, tontorraren inguruan kokatuta. Defentsa-sistema hori ez da ezezaguna, izan ere, hurbilen duen paraleloa Illunzarreko erromatar kanpamentu militarrean dago (Martínez 2006; 2009). Beraz, identifikatu daiteke kanpaina militar baten zehar altxatutako erromatar kanpamentu militar bat bezala, hau da, *castra aestiva* bat.

Ondorengo materialei dagokienez, aipatu beharra dago topatu dela Fernando VII. ren txanpon bat eta 13 mm-tako berunezko bala bat. Nahiz eta azken hori kalibre txikikoa izan XIX. mendeko hasierako arautegiko armetarako, baliteke aurkikuntza horiek lotu behar



izatea I. Karlistaldiko gertaerekin, nahiz eta horiek oso modu zeharrean eragina izan tontorraren inguruetan.

Guda Zibilar dagokionez, dagoeneko bibliografian ezaguna dena albo batera utzita (Martínez Bande 1969), aipatzekoa da kartutxoteriako hainbat elementu berreskuratu direla (kartutxoak, zorroak, balak eta malgukiko orrazi bat). Gehienak 7x57 mm-ko motakoak (espainiar mausera) baina baita 7,92x57 mm-ko zenbait zorro eta 7,63x25 mm-ko zorro bat Mauser C96 pistolarako.

Metraila ugari azaldu da nahiz eta lagin bi besterik jaso. Aipatzekoa da artilleriako jaurtigaien bi gidatze-banda zati eta behartze-banda zati bat topatu direla. Horiei guztiei esker baieztatu ahal izan da tontor honetan kokatutako gotorlekuen (lubakiak etab.) bonbardaketa artilleriarekin.

Zorroen markaketen daten arabera, aurkikuntzen sakabanaketaren arabera aztarnategian eta testuinguru historiko orokorraren arabera, topatutako aztarnak identifikatu daitezke 1937ko irailean egondako borrokaldiekin, oldarraldi Nazionalaren testuinguruan Gipuzkoaren kontrola osatzearen. Horien arabera, Nazionalen lurreko asaltoa baino lehen, artilleriako bonbardaketa egon zen, eta behin lurreko asaltoan zehar tiroketa bizia.

1937ko irailaren 24an, Karakate hartu zuten Pérez Salas komandantearen agindupean oldarraldian aurrera zihozzen tropek. Behin fronte-lerroa egonkortu zenean Deba bailaran, Karakate okupatzen jarraitu zuten Nazionalak.

Donostian, 2017ko apirilaren 18an

Sinadura:

Antxoka Martínez Velasco  
**Historiaurreko Arkeologia Saila**  
**ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA**



## 7. BIBLIOGRAFIA

---

Orokorra:

- Camino, J. Peralta, E. eta Torres-Martínez, J. F. (koor.) (2015): *Las guerras astur-cántabras*. Gijón.
- Martínez Velasco, A.  
(2006): "Posibles campamentos romanos en el País Vasco: nuevas aportaciones". *II Congreso Internacional de Arqueología Militar Romana. Producción y abastecimiento en el ámbito militar*. Universidad de León. León: 691-705.  
(2009): "Campamentos romanos de campaña en el extremo oriental del cantábrico". *XX Frontera Romana / Limes XX. Gladius, Anejos*, 13. Madrid: 365-374.
- Martínez Bande, J. M. (1969): La guerra en el Norte. *Monografías de la guerra de España*, 4. Servicio Histórico Militar. Madrid.
- Peralta Labrador, E. (2002): "Los campamentos de campaña (*castra aestiva*): evidencias científicas y carencias académicas". *Nivel Cero* 10. Santander: 49-87.
- Serna, M. L.; Martínez Velasco, A. eta Fernández Acebo, V. (koor.) (2010): *Castros y castra en Cantabria. Fortificaciones desde los orígenes de la Edad del Hierro a las guerras con Roma. Catálogo, revisión y puesta al día*. Santander.

Kartuxtoteriarako:



- Martínez Velasco, A. (2008): "Breve introducción a la cartuchería para arqueólogos". *Sautuola*, XIV. Santander: 383-398. [http://www.municion.org/SautuolaXIV\\_024.pdf](http://www.municion.org/SautuolaXIV_024.pdf).
- Segura, J. (2002): *Arma, balistika eta kartuxtogintza hiztegia : euskara-gaztelania gaztelania-euskara = Diccionario de armas, balística y cartuchería : vasco-castellano castellano-vasco*. Vitoria-Gasteiz.
- municion.org







## 1. ERANSKINA: PLANOAK





 <b>ARANZADI ZIENTZI ELKARTEA</b>	<b>KARAKATE / KORTAZAR (Elgoibar / Soraluze)</b>	
	Izenburua: KARAKATE / KORTAZAR / MUNETETA (748,32 m). Koltapena Gipuzkoan	Datu: 2016ko martxoan
Oinarri topografikoa: Gipuzkoako Foru Aldundia. Kartografia orokorra	Planoa: A.M.V.	Oritu: 1
Zuzendaria: Anboka Martinez Velasco	Karakate / Kortazar. Erreferentziako koordenatua Datum UTM 30N ETRS89 547808.42,4782326.43,740 m	
Legendari: ▲		



**Karakate 2016**


**1** Kata. 1 x 1 m. UTM 30N ETRS89 547481.69,4782383.57,731 m


**2** Kata. 1 x 1 m. UTM 30N ETRS89 547488.38,4782416.06,726 m

**(M.M.)** Mialeka magnetikoa

**(E.G.)** Ebakiduraren garbiketa. UTM 30N ETRS89 547547.98,4782298.33,725 m

<b>KARAKATE 2016 (Elgoibar / Soraluze)</b>	
Izenburua:	Erromatar defentsia lerroa eta burutako lan arkeologikoak
Oinarri topografikoa:	Gipuzkoako Foru Aldundia, 1:5.000, KSIV-c
Zuzendatari:	Antxoka Martinez Velasco
Data: 2017ko martxoa	
Planoa: A.M.V.	
Orri: 2	





(mm)	7x57	7.92x57	7.63x25
Bala	●	▲	▲
Zorroa	▲	▲	▲
Kartuboa	■	■	■
Orrazia	—	—	—
Artilleriako elementuak	◆	◆	◆
Bestelako materialak	★	★	★



Legenda:

- Lubeta
- Lubanarroa
- Kontralubanarroa
- Sarbidea

**aranzadi**  
 ZIENTZIA ELKARTEA, SOCIÉTÉ DE SCIENCES  
 SOCIÉTÉ SCIENTIFIQUE - SOCIÉTÉ DE SCIENCES

**KARAKATE 2016 (Elgoibar / Soraluze)**

Izenburua:	Material arkeologikoak. Sakabanaketa.		
Oinarri topografikoa:	Gipuzkoako Foru Aldundia, 1:5.000, KSIV-c	Data:	2017ko martxoa
Zuzendaria:	Antxoka Martinez Velasco	Planoa:	A.M.V.
		Orrri:	4



## 2. ERANSKINA: MATERIALEN INBENTARIOA

KARAKATE 2016 Materialen Inbentarioa					
SIGLA	Koordenatuak UTM 30N ETRS89	Objetua	Deskribapena	Oharrak	
MKA.2016.1	547505,4782403,729 m	Txanpona	Fernando VII. 181-8 marat.	Txanpon-etxea: Juvia?	
MKA.2016.2	547574,471,4782335.601,742 m	Bala esferikoa	Kalibrea: 13 mm	Inpaktuaren marka	
MKA.2016.3	547622,471,4782312.601,729 m	Kanpaitxoa	Altuera osoa: 4,65; oinean: 4,4 x 3,65 cm. Ebakidura obalatua. Zulotxo bat atzeko partean (puskatuta). Latoia edo brontzea.	San Andres-en ikoroski txikia grabaturik kanpoaldean. Zintzarria galduta.	

GUDA ZIBILA ETA KARTUTXOTERIA							
SIGLA	Koordenatuak UTM 30N ETRS89	Objetua	Mota	Markaketa	Lantegia	Data	Oharrak
MKA.2016.4	547648,471,4782342.601,735 m	Kartutxoa	7x57 mm	F N 19 3- T	Birkargatuta. Non? Jatorrizko kartutxoa: Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Kartutxoa birkargatuta dago. Bala ez da originala, torneatuta dago.
MKA.2016.5	547645,471,4782308.601,739 m	Kartutxoa	7x57 mm	F N 19 36 T	Birkargatuta. Non? Jatorrizko kartutxoa: Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1936	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.6	547584,471,4782335.601,743 m	Kartutxoa	7x57 mm	P S 1918	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1918	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta. Kolpe batek deformatuta gorputzean



MKA.2016.7	547620.471.4782353.601,736 m	Kartutxoa	7x57 mm	P S 19--	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusilariantzako munizio arrunta. Kolpe batek deformatuta gorputzean
MKA.2016.8	547461.471.4782409.601,725 m	Zorroa	7,92x57 mm	P131 [36] S* 32	Deutsche Waffen und Munitionsfabrik AG, Berlin-Borsigwalde-ko lantegia (Alemania). S* Latoizko zorroa.	1936 edo lehenago	KARAKATE.2016.MM.43tik- 48ra orrazi oso bat osatzen dute. Alemaniar Mauser fusilariantzako munizio arrunta.
MKA.2016.9	547461.471.4782409.601,725 m	Zorroa	7,92x57 mm	P--- 36 S* 14	Ezin da zehaztu lantegia. Markaketak Alemaniako exportatzaileko patroia dauka. S*-Latoizko zorroa.	1936	KARAKATE.2016.MM.43tik- 48ra orrazi oso bat osatzen dute. Alemaniar Mauser fusilariantzako munizio arrunta.
MKA.2016.10	547461.471.4782409.601,725 m	Zorroa	7,92x57 mm	P1-- 35 S* --	Ezin da zehaztu lantegia. Markaketak Alemaniako exportatzaileko patroia dauka. S*-Latoizko zorroa.	1935	KARAKATE.2016.MM.43tik- 48ra orrazi oso bat osatzen dute. Alemaniar Mauser fusilariantzako munizio arrunta.
MKA.2016.11	547461.471.4782409.601,725 m	Zorroa	7,92x57 mm	DW[M] [193-]	Deutsche Waffen und Munitionsfabrik AG, Berlin-Borsigwalde-ko lantegia (Alemania). S* Latoizko zorroa.	1936 edo lehenago	KARAKATE.2016.MM.43tik- 48ra orrazi oso bat osatzen dute. Alemaniar Mauser fusilariantzako munizio arrunta.
MKA.2016.12	547461.471.4782409.601,725 m	Zorroa	7,92x57 mm	[P131] 36 [S*] 32	Deutsche Waffen und Munitionsfabrik AG, Berlin-Borsigwalde-ko lantegia (Alemania). S* Latoizko zorroa.	1936	KARAKATE.2016.MM.43ren markaketa bera. KARAKATE.2016.MM.43tik- 48ra orrazi oso bat osatzen dute. Alemaniar Mauser fusilariantzako munizio arrunta.
MKA.2016.13	547481.471.4782404.601,725 m	Zorroa	7,92x57 mm	P131 36 S* 51	Deutsche Waffen und Munitionsfabrik AG, Berlin-Borsigwalde-ko lantegia (Alemania). S* Latoizko zorroa.	1936	Laka berdea pistoiaren junturan. Alemaniar Mauser fusilariantzako munizio arrunta



MKA.2016.14	547591.471.4782346.601.742 m	Zorroa	7,92x57 mm	P132 36 S* 4	Metallwerke Wandhofen GmbH (Schwerte, Alemania). S*-Latoizko zorroa.	1936	Alemaniar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.15	547488.471.4782397.601.733 m	Zorroa	7,92x57 mm	P154 36 S* 21	Polte Armaturen und Maschinenfabrik A.G., Magdeburgoko lantegia, Sachsen (Alemania). S*-Latoizko zorroa.	1936	Alemaniar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.16	547469.471.4782419.601.720 m	Zorroa	7,92x57 mm	P198 36 S* 4	Metallwarenfabrik Treuenbrietzen, GmbH. Belsig/Mark-eko lantegia (Alemania). S*-Latoizko zorroa.	1936	Alemaniar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.17	547443.471.4782350.601.723 m	Zorroa	7,92x57 mm	W	Manfred Weiss Patronenfabrik (Budapest, Hungaria)	1937ko iraila baino lehen	Zintzuraren eta lepoaren zati bat apurtuta
MKA.2016.18	547578.471.4782344.601.740 m	Zorroa	7,63x25 mm	BKIW NICORRO	Berlin-Karlsruher Industrie Werke (Alemania), (D.W.M.)ren izen komertziala 1922 y 1936 bitartean). NICORRO= pistoi ez korrosibo baten merkataritza-marka	1922-1936	Mauser 96 pistolarentzako sortutako kartuxoa. Zorroak ahoa galduta du.
MKA.2016.19	547614.471.4782331.601.736 m	Zorroa	7x57 mm	Jatorriz ez dago markatuta.	Ezezaguna. Baliteke ekoiztua izana inguruetakoko lantegietan	1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.20	547488.471.4782414.601.724 m	Zorroa	7x57 mm	F N T 191-	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1920a baino lehenago	Birgargatuta. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.21	547568.471.4782333.601.742 m	Zorroa	7x57 mm	F N T [19]--	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1920a baino lehenago	KARAKATE.2016.MM.36rekin batera. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.22	547598.471.4782311.601.735 m	Zorroa	7x57 mm	F N 19 31 T	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1931	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta





MKA.2016.23	547579.471,4782357.601,744 m	Zorroa	7x57 mm	F N 19 36 T	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1936	Puskatuta 2 zatitan. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.24	547496.471,4782409.601,734 m	Zorroa	7x57 mm	F N 19 35 T	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1935	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.25	547650.471,4782333.601,732 m	Zorroa	7x57 mm	[F] N [19] 35 T	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1935	Pistoia kolpekatu gabea. Birkargatuta? Zintzurra guztiz galduta. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.26	547572,4782323,743 m	Zorroa	7x57 mm	[F N] 19 [-] T	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1937a baino lehenagoko markaketa	Zintzurra, lepoa eta gorputzaren zati bat galduta. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.27	547593.471,4782380.601,737 m	Zorroa	7x57 mm	[F] N [19] 3- [T]	Fábrica Nacional de Toledo (Toledo, Espainia)	1937a baino lehenagoko markaketa	Letren tipografia eta kokapena FNT-rena da. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.28	547568.471,4782333.601,742 m	Zorro	7x57 mm	P S 1935	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1935	KARAKATE.2016.MM.36rekin batera. Birkargatuta. Kolpekatu gabe. Zintzuraren zati bat galduta. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.29	547607.471,4782330.601,738 m	Zorroa	7x57 mm	P S 1935	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1935	Zintzurra, lepoa eta gorputzaren zati bat galduta. Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta
MKA.2016.30	547668.471,4782301.601,729 m	Zorroa	7x57 mm	P S 1935	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1935	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta. Kolpe batek deformatuta gorputzean
MKA.2016.31	547594.471,4782309.601,742 m	Kartutxoa	7x57 mm	P S 1917	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1917	Espainiar Mauser fusilariarentzako munizio arrunta. Kolpe batek deformatuta gorputzean



MKA.2016.32	547620.471,4782353.601,736 m	Zorroa	7x57 mm	P S 19 --	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.33	547596.471,4782355.601,738 m	Zorroa	7x57 mm	P S [19 --]	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.34	547572.471,4782334.601,743 m	Zorroa	7x57 mm	P S [19 --]	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Zintzurra, lepoa eta gorputzaren zati bat galduta. Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.35	547595.471,4782354.601,736 m	Zorroa	7x57 mm	[P S] 19 --	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Zenbakien tipografia P S-rena da. Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.36	547571.471,4782337.601,746 m	Zorroa	7x57 mm	P S 19 --	Pirotécnica de Sevilla (Sevilla, Espainia)	1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.37	547505,4782403,735 m	Zorroa	7x57 mm	Markatarik gabe	Ezezaguna. Baliteke ekoiztua izana inguruetakoko lantegietan	1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.38	547588.471,4782342.601,739 m	Zorroa	7x57 mm	Ez du konserbatzen		1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.39	547679.471,4782324.601,730 m	Zorroa	7x57 mm	Ez du konserbatzen		1937 ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta.
MKA.2016.40	547648.471,4782342.601,735 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.41	547645.471,4782308.601,729 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.42	547587.471,4782305.601,732 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.43	547550.471,4782331.601,739 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta



MKA.2016.44	547683.471,4782286.601,729 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.45	547606.471,4782360.601,737 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.46	547579.471,4782345.601,743 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Inpaktuak eragindako marka buruan. Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.47	547614.471,4782293.601,724 m	Bala	7 mm			1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.48	547588.471,4782310.601,727m	7 mm-tako bala baten bilduki zatia				1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.49	547585,4782312,727 m	7 mm-tako bala baten bilduki zatia				1937ko iraila baino lehen	Espainiar Mauser fusileriarentzako munizio arrunta
MKA.2016.50	547461.471,4782409.601,725 m	Malgukiko orrazia	7,92x57 mm-tako bost kartutxotarako ohiko alemaniar orrazia		Burdinezkoa edo altzairuzkoa. Ez dago lantegia zehazterik.	1936a baino lehen	KARAKATE.2016.MM.43tik-48ra orrazi oso bat osatzen dute. Alemaniar Mauser fusileriarentzako kargadore arrunta.

**ARTILLERIAKO JAURTIGAIEN ELEMENTUAK**

SIGLA	Koordenatuak UTM 30N ETRS89	Objetua		Oharrak
		Objetua	Oharrak	
MKA.2016.51	547574.471,4782307.601,729 m	Artilleriako jaurtigai baten gidatze-banda baten segmentua		Latoia.
MKA.2016.52	547470.471,4782384.601,730 m	Artilleriako jaurtigai baten gidatze-banda baten segmentua		Latoia.
MKA.2016.53	547562,478232,743 m	Artilleriako jaurtigai baten behartze-banda baten segmentua		Estriak ditu. Latoia.
MKA.2016.54	547679.471,4782324.601,730 m	Artilleria-jaurtigai baten metraila zatia		Altzairua
MKA.2016.55	547593.471,4782351.601,738 m	Artilleria-jaurtigai baten metraila zatia		Altzairua

